

KONTROL MOZIOA

AMARA BERRIKO HAURTXOKO ETA GAZTELEKUAREN BALDINTZAK

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko otsailaren 11an Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2018ko azaroaren 3an, Amara Berriko Olaeta plazan jarritako barrakoietan ireki ziren auzoko haur eta gazteei zuzendutako Haurtxoko eta Gaztelekuaren zerbitzuak. Tarte honetan, hartzaile eta langileen kexa ugari jaso dira. Izan ere, jarritako barrakoiak ez dituzte haur, gazte eta langileen jarduerak gauzatzeko baldintzak betetzen.

Barrakoiak ez daude Haurtxokoan eta Gaztelekuan egiten diren ekimenen zarata sostengatzeko egokituak, lurra irristakorra da, lurzorua ez da sendoa eta honezkero, hartzaile eta langileengan ondorio kaltegarriak daude; langileen gaixotasunak edo eta behar berezietako haur eta gazteen parte hartzea bertan behera utzi behar izana, adibidez.

Laster lau hilabete beteko dira aipatutako zerbitzuak ireki zirenetik eta aurrez aipatutakoa gutxi balitz, otsailaren 15era arte gasolio sorgailu baten bitartez funtzionatzen egon dira. Honako neurri behin-behineko honen aurrean ez dugu ulertzen nola ez den epe laburragoan argindarraren kontraturik bideratu eta gasoliozko sorgailua erretiratu.

Honi guztiari erantzun bat eman nahian, jakin dugunaren arabera, aste honetan bertan, barrakoietakoko sabaian soinua xurgatzeko babesa jartzen hasi dira, hala ere, dagoeneko Udal Gobernuak haur eta gazteei zuzendutako zerbitzuetan edukiera mugatzea erabaki du. Hau da, hartzaileen parte hartzea mugatzea, familiak baldintzatzea eta langileei heziketa programa oztopatzea.

Hori guztia dela eta, aurkezten dut honako

KONTROL MOZIOA

1.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Amarako Haurtxokoan eta Gaztelekuaren kudeaketan ardura duten udal barneko atalarekin eta zerbitzuko kudeatzailearekin batera, barrakoiek dituzten hutsuneak aztertu ditzala, segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak identifikatuz eta ahalbidetuz.

2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari identifikatutako hutsuneak ahalbidetzen direnean, haur eta gazteei zuzendutako zerbitzuak lehen zuten aforora bueltatzeko zer egin behar den aztertzeko eta, horren arabera, heziketa programa gehiago ez oztopatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

Donostian, 2019ko otsailaren 18an

Naiara Sampedro Perez

EH Bildu udal taldeko zinegotzia